

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2013ko otsailaren 26a. IX. urtea. 2.551. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Elkarte gastronomiko parekideak bultzatu nahi ditu Udalak

Tolosako Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu du Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 02

Saharar herriaren alde elkarretaratzea egingo dute, bihar

Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoaren 37. urteurrenaren harira antolatu dute 03



ASIR MAZ


→ **Ordenagailu zaleen elkargunea.** Ostiralean hasi eta igandera bitarte 600 lagun baino gehiago bilduko dira Tolosako Usabal kiroldegian. Ordenagailu zaleen Gipuzkoako topaketarik handiena den honetan, parte hartzaileei zuzendutako ekintzez gain, herritar guztiei bideratutakoak ere izango dira. 03

Euskal ligaren lehen jardunaldian Danenako pultsulariak fin aritu dira

Alvarez, Martinez eta Sasiain izan dira hiru onenak gizonezkoetan, eta emakumezkoetan, berriz, Davilak eta Amonarizek lortu dute puntu gehien 07

Antolatzaileak «oso gustura» Txakurkrosaren parte hartzearekin

70 korrikalarik hartu dute parte euren zakurrekin, ekimenaren bigarren edizioan; Etxeberria eta Fernandez izan dira garaileak 06



Elurretan lasterketa egin behar izan zuten parte hartzaileak. HITZA

• Argazkiak nora eta noiz bidali: thargazkiak@hitza.info helbidera martxoaren 3a bitarte

Argazkiek gutxienez 20 zentimetrokoak eta 300 ppp-ko



Inauterietako Argazki lehiaketa



Parte hartuko duten argazki guztiak ikusgai izango dira Inauterietan tolosaldea.hitza.info webgunean!

• Saria: Elketa jatetxean bi lagunentzako otordua

Elketa Jatetxea

San Miguel bailara, 2
Hernialde 943 65 21 16

www.elketa.com

TOLOSako INMAKULADA IKASTETxea		HEZIKETA ZIKLOAK	
Truke maila:		Gai maila:	
• Errealitatea inguratzeko	• Osasun Dokumentazioa	• Giza eta Integrazioa	• Haur Heziketa
• Fama eta Parafarmazia	• Diagnostiko India	• Errealitatea	
HITZALDIA: 2013/02/28 18:30etan LAGUNTZA BIDEZKO UGALKETA			
ATE IRIKIAK MARTXOAREN 7an 19:30etan			

Elkarte gastronomikoetan parekidetasuna lortu nahi du Tolosako Udalak

Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzat hitzarmena sinatu du; prozesu parte hartzailea izango da

Eneritz Maiz Tolosa

Tolosako Udalak elkarte gastronomikoak parekide izateko bidea martxan jarri du. Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzat hitzarmena sinatu du, eta bi aldeek prozesu parte hartzailearen bidez egingo dute lan. Estabaida, hausnarketa eta herriko eragileen arteko harremana estutzeko aukera izango da.

Ibai Iriarte Tolosako alkateak eta Laura Gomez aldundiko Berdintasun zuzendariak eman zuten hitzarmenaren berri. Tolosan aurrera eramango den prozesu parte hartzailea finantzatzeko, Aldundiak 30.000 euro jarriko ditu. Elkarre gastronomikoekin adostutako plan estrategikoa da, eta eremu horietan emakumeen parte hartzea bermatu nahi da. Udalera sartu zirenetik, genero politikak udalgintzaren zutabetzat hartu zituztela nabarmendu zuten Iriartek.

Hitzarmenaren xedea emakumeek gizonekiko berdintasunean parte hartu ahal izatea dela ekarri zuen gogora Gomezek. Eta esparru publiko zehatz batean, hau da, jaietan eta espazio guneetan ere parte hartzea ahalbiderratu behar dela, eta prozesu horiek indartu egin behar direla eskatu zuen. «Oinarri-oinarriko lanketa egin behar dela ikusten dugu, egituraz matxismoa duelako gure gizarteak», argitu du Iriartek.

Mahai gainean jarri duten planaren lehen hazia 2010. urtean jarri zela kontatu zuen Iriartek, eta elkarte gastronomikoekin hasitako lanaren jarraipena izango da. Proiektua egoera berriei egokitu moldatuko dute, eta bidean ika-



Ibai Iriarte eta Laura Gomez, proiektua aurkezten. E. MAIZ

↓ Datua

30.000

■ **Euro.** Parte hartze prozesua finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak 30.000 euro eman dizkio Tolosako Udalari. Bost elkarte hartuko dute parte.

siak baliatuko dituzte horretarako. Adostutako dekalogoak zailtasun batzuk zituen, eta horiek ekidinez berria egokitu dute. Elkarrekin eta elkarteetan bertan egin nahi dutela lan nabarmendu zuten alkateak. Hausnarketa sustatu nahi dute, eta gizon-emakumeen parte hartzea izango da aztertu beharrekoa. Tolosak duen bizitza kulturala izugarria dela ekarri zuen gogora, eta horiek antolatzen dituzten eragileekin egin nahi dute lana, Tolosako herrian gizon eta emakumeen parte hartzea nolako den jakiteko.

Nolabait, hiru esparrutan egin nahi dute: jaiak eta ospakizunak; eragileak, elkarren arteko ekitaldiak bultzatuz eta elkarte gastronomikoak. Elkarrekin egin duten lehen hurbilketak izan duen harrera aipatzeko dela

adierazi zuen Iriartek: «Aukeraturako bost elkarteek baiezkoa zuzenean eman dute. Eskertu beharrekoa da Aiz-Orratz, Txinparta, Gure Kaiola, Aurrera eta Bata-suna elkarteek eskaini diguten konfiantza eta gertutasuna».

Erakundeen arteko elkarlanak duen garrantzia nabarmendu zuten, eta administrazio publikoek gizarte aldaketa parekideak zuzentzeko ardura dutela. Gipuzkoa mailan egin diren azterketek, emakumeek jaietan duten parte hartze kopurua, kalitatea, esanahia eta balioa txikiagoak direla kasu guztietan gizonek dutena baino nabarmendu zuten aldundiko ordezkariak. Eta hau agerikoa dela argitu zuen: «Ez da jai esanguratsuetan bakarrik, baizik eta, jaien inguruan antolatzen diren alboko beste jarduerak guztietan ere gertatzen da. Kirol ekitaldietan, musikan, kultur jardueretan, ospakizun erlijiosotan, dantzan, sukaldaritzan, gastronomian...».

Honi lotuta, elkarte gastronomikoek duten garrantzia nabarmendu zuen Gomezek: «Askotan elkarteak izaten dira txapelketa edota ekitaldiak antolatzen dituztenak, eta gizonezkoak izaten dira protagonista».

↓ Iragarki laburrak

LANESKARIA

Etxeko lanetarako.

Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka edonora joan ahal izateko. Interesa duen edonork telefono zenbaki hauetara deitu dezake: 943 69 68 82 edo 606 52 19 92ra.

Euskal dortokak



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga

Biologoa

Dortoka hitza irakurri duzuenean, ziur nago Galapagoetako dortoka erraldoi eta ikusgarria etorri zaizuela burura, edo agian maskota moduan erabiltzen dugun belarri gorriko dortoka polita hura. Baina gure ekokulturaren txoko xume honetan, gure dorotoez hitz egin-go dugu, bai gure ere, Euskal Herrian baditugu eta bertokoak diren bi dortoka. Ez dira Galapagoetakoak bezain handiak, eta ez dituzte Floridako dortoken kolore politak, baina ze demontre! Etxekoak dira! Bi dortoka ditugu gurean: korrontezalea eta istilzalea, baina euskarak ez die 'dortoka' deitzen, euskarak *apoarmatu* izena eman zien, polita izena ezta?

Nonbait dortoka hauek ikusizituzten lehen euskaldunek, apo baten antza eman zien, baina gainean zuen eskola ikusita armaturik edo babesturik zegoela emango zuen. Beraz, ez deitu dortoka, deitu: Apoarmatu korrontezalea (Mauremys leprosa) eta Apoarmatu istilzalea (Emys orbicularis). Oso sarrera polita dirudien arren, honen atzean nahiko berri txarrak daude gure apoarmatuentzat, izan ere, bi espezien egoera nahiko kaxkarrak da gure Euskal Herri mendizale, naturazale, ingurumenazale, birziklatzaile eta ekologismozalean.

Nazioarteko espezieen zerrenda gorrian, apoarmatu korrontezalea 'ebaluatugabeko espezie' bezala katalogatua dago eta apoarmatu istilzaleari 'ia mehatxaturiko espezie' ren kategoria eman diote. Laburki esanda, apoarmatu korrontezalearen egoeraz oso gutxi dakigu eta istilzalea laster desagertzeko zorian geratuko da, aupa gu ta gutarrak!

Zein da gure apoarmatuen egoera honen erantzulea? Gure ibai eta erreken uren kalitate jaitsierak eragin nabaria izan duen arren, apoarmatuei 70. hamarkadan Floridatik maskota modura ekarri zen Floridako dortokak kalte galanta egin zien. Kontuz maskotekin! Zure Floridako dortokaz nazkatzen bazara, hauen bilketa lekuetara eramane edo bestela, ahal ezazu dortoka zopa gozo bat! Floridako dortokak alde batera utzita, hitz egin dezagun gure apoarmatuez, nolakoak dira?

Apoarmatu korrontezalea haragijalea da, ehiztari bikaina, in-sektu eta bestelako animaliatxoak jaten ditu, tarteka arrainak eta igelak bezalako animalia handi-
goak jaten dituen arren. Denbora

gehiena uretan ematen du, lurre-ra umatzen eta eguzkia hartzena joaten da, gainera neguan eta lehorteen lozorro moduko batean sartzeko gai da eta urpean denbora ugari egin dezake ezer jan gabe. 20 zentimetroko tamaina duen apoarmatu koitatu honek, naturan harrapari ugari ditu: azeri, igaraba, basurde eta bestelako hegazi urtarrek. Horregatik, batzuek beste egoera naturalean 25 urte bizi daitezke baina zainketa lekuetan 70 urteraino irits daitezke.

Apoarmatu istilzaleak, korrontezalearekin banatzen ditu eremuak, baina istilzaleak nahiago ditu ur geldagoak. Jatorduan ez du bere lehengusua antzik, apoarmatu istilzalea haragijalea den arren, besterik ez landareez ere gustura elikatzen baita.

Badu xelebrekeria bat apoarmatu istilzaleak. Bera bizi den urak bederatzi gradutik behera daudenean, oso apoarmatu geldoa, zintzoa eta gutxi jaten duena da. Baina udaberria heltzean eta bere urmaeleko tenperaturak bederatzi gradutik gora daudenean, gure apoarmatuxo txiki geldoa, benetako apoarmatu aktibo, zoro eta sexuala bihurtzen da. Urpean benetako lasterketak egoten dira, arrak emeen atzetik doaz, emeek noski, ez diete hain errezutzen eta berebiziko hokadak botatzen dizkiete ar gosetiei. Behin ar batek, eme bati atzetik heltzean gorteiatua hasten da, oso gorteiatu basatia. Arrak, bere buruarekin emearen burua kolpatzen du, hau oskol barrenara bidaliz, borroka honen ostean, hamar minutuz loturik egoten dira eta... kitto! Arra aste guztia, urpean, ur eta lurrak harrotuz emearen atzetik zalapartan ibili osten... hamar minutu eta kitto. Gogorra da bai, dortoka arraren bizitza.

Hauze izan da gaurkoan, apoarmatuei egindako omenaldi xumea. Utzi dortoka hitza erabiltze-ari eta barneratu zuen euskarari apoarmatu hitza, politagoa da eta. Jakin ezazu apoarmatu hauen egoera askoz okerragoa izango zela lauzpabost boluntarioengatik izan ez balitz, lan handia eta inongo errekonozimendurik gabea egiten ari dira. Tartean be-raiei elkarriketara bat prentsan egitea hain zaila ote da? Milioika diru partida bestelako ekintzeta-
ra bideratzen diren Gipuzkoa ekologiko honetan, zer ote da ba apur bat apoarmatuen mesedetarako proiektuetarako bideratzea?

Informazio guzti hau eta gehiago (adi irakasleak!) www.euskal-natura.net derituz euskal ekokulturaren txoko handiari zordio-gu eta idaztearen ideia, Aranzadiko Herpetologia sailari www.aranzadi-zientziak.org. Hone-lako web orri xume eta elkarreei eskere ez balitz non ote zegoen gure faunaren gehiengoa? Zelako al-txor ezkutua dugun gurean.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Iazko irudia errepikatuko da aurtengoan ere Usabal kiroldegian: kantxa ordenagailuz gainezka. HITZA

Gipuzkoa Encounter ostiralean hasiko da, tolosarrak erakartzeko helburuarekin

Usabal kiroldegian 600 lagunetik gora elkartzeko dira, ordenagailuen munduaz gozatzeko

Asier Imaz Tolosa

Gipuzkoa Encounter 7 ostiralean hasi eta igandean amaituko da. Hiru egunetan zehar, Gipuzkoan egiten den ordenagailu eta teknologia berrien topaketarik handiena egingo da Tolosan. Zazpigarren edizio honetan, aurrekoetan bezala, helburua tolosarrak Encounterrean erakartzea izango da. Horretarako, alde batetik herriko eragileekin aritu dira antolakuntza lanetan, eta bestetik, herriko orori zabalduko egitarau irekia osatu dute.

Atsedunik izango ez duen topaketan, jokoak, sari garrantzitsuak, lehiaketak, animazioak, eta abar egongo dira. Izena eman duten parte hartzaileak, hau da, hiru egunetan Usabal kiroldegitik atera ere egingo ez diren ordenagailuzaleak, 600 lagunetik gora izango dira.

Lanbide Heziketa Insitutua

Tolosaldeko Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuko ikasleak antolatzaile lanetan aritu dira urtero bezala. Errendimendu handiko sareei buruz ikasturtean zehar ikasi dutena, praktikan jartzeko aukera edukiko dute ondorengo egunetan; goizez, arratsalde eta gauez ariko dira txandaka lanean. Institutuko arduradunek eskerrak eman nahi izan dizkie antolatzaileei ikasleei aukera hau eskaintzeagatik.

↓ Egitarau irekia

MARTXOAK 2, LARUNBATA

■ **12:00etan.** Bideojokoak eta parekidetasuna hizpide izango dituen hitzaldia, Urko Fernandezek eskutik.

■ **17:00-20:00.** Musika eta artea uztartuz, Tolosako bi artisten sormen tailerra.

Musika taldeentzat tailerrak. Gipuzkoa Encounterrek irautean duen hiru egunetan musikari eta musikazaleei zuzendutako hiru tailer egongo dira: Reasonen oinarrituta ordenagailuekin musika egiteko sarrera tailerra; DAW-en oinarrituta ordenagailuekin musika egiteko sarrera tailerra eta sintetizatzaile birtualetan oinarritutako soinuak eratze tailerra.

Saharar herriaren alde elkartzeko dira bihar, Trianguloan

Amasa-Villabonako eta Tolosako udalek Sahararen autodeterminazio eskubidea babestu dute

A. Imaz

Saharar Errepublikak Arabiar Demokratikoa aldarrikatu zutela 37 urte beteko dira bihar. Tolosaldea Sahararekin elkarrekin hainbat ekimen antolatu ditu data hori gogoratzeko, eta Tolosako Udalak bat egin du herri mugimenduaren deialdiekin. Gaur, hilak 26, osoko bilkuran mozio bat eztabaidatu dute, eta bihar, 19:30ean, herritarrek kalera deitu dituzte. Ordu horretan, Tolosako Trianguloa plazan, elkarretartzea egingo dute *Maroko Saharik at, autodeterminazioa eta independentzia* lelopean. Azkenik, urteurren egunean, Tolosako udalarekin Saharako bandera zintzilikatuko du udalak: «Saharar herriari dagokion autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko, eta era berean, sahararrekiko elkartasuna adierazteko».

Marokoren epaia salatu dute

Amasa-Villabonako Udalak gogor salatu du Marokok asteburu honetan 24 ekintzaile sahararren aurka emandako epaia: «Herriari goi mailako traizioa egin diotela

leporatuta, zigorrak gogorrak ezarri dizkiete, inolako frogarik gabe, nazioarteko behatzaileek egiaztatutako bezala».

Udaletik azaldu dutenez, «eta giza eskubideen elkarrekin arabera», 24 ekintzaile horiek torturapean egin dituzte euren aitortpenak, baina epaimahai militarrek uko egin dio hori ikertzeari. Amasa-Villabonako gobernu taldearen iritziz, «epai horrek giza eskubideen gaineko nazioarteko parametro guztiak urratzen ditu, eta helburu du herri sahararra beldurtzea, autodeterminazioaren aldeko borroka bertan behera utz dezan».

Marokok herri saharararen giza eskubideak, tortura, bortxaketa, eraso, atxiloteta, desagertzea eta erbesteratzea bidez etengabe urratzen dituela salatu dute udaletik. Epaia arbitrajearekin batera, elkartasuna adierazi die kondenatutako ekintzaile sahararrei, euren askatasuna eskatuz: «Ikerketa inpartzial bat eskatzen dugu, kanpaleku horretan jazotakoa, batetik, eta egunero lurralde okupatueta gertatzen dena, bestetik, argitzen laguntzeko». Ildo horretatik, giza eskubideak defendatu eta gainbegiratzeko Minusrok eskumenak izan ditzala eskatu du Amasa-Villabonako Udalak. Azkenik, bere babesa agertu die saharar herriaren kausari, eta autodeterminazio eskubidea aldarrikatu dute.

→ Laburrak

Aurrekontuen inguruko batzarra, gaur, 19:00etan

IBARRA > 2013ko aurrekontuak osatzeko aldera, Ibarra Udalak batzarra egingo du gaur herritarrekin, 19:00etan, udaletxean. Ibartarrak bertara gonbidatu dituzte, parte hartzea bultzatzeko helburuz. Aurrekontuak ostegunean aztertuko dira udalbatzaren bilkuran.

Inauterien balantzea egiteko bilera, bihar

TOLOSA > Udaletik azaldu duteenez bihar, hilak 27, jai batzordearen bilera egingo dute kultur etxeko areto nagusian. Bertan 19:30ean elkartzeko dira, eta pasa berri diren inauterien balantzea egingo dute. Udaletik herritar guztiak gonbidatu dituzte jai batzordera.

Arkauten auzo lokalak egitearen inguruko bilera

TOLOSA > Larremendi auzoko bizilagunek bilera egingo dute bihar, hilak 27, 19:30ean. Arkauteko etxean auzo lokalak egiteko aukerari buruz ariko dira. Bilera Arkauteko eraikinean bertan izango da.

Azken ostiraleko datuak eman dituzte Herri-tik

POLITIKA > Tolosaldean azken ostiraleko elkarretaratzeetan bildu ziren herritarren kopurua eman dute Herri-tik. Aduna: 8; Alegi: 15; Amezketak: 13; Aneta: 29; Asteasu: 6; Berastegi: 43; Berrobi: 5; Gaztelu: 8; Ibarra: 45; Ikaztegieta: 15; Irua: 20; Leaburu-Txarama: 11; Lizartza: 40; Villabona: 50; eta Zizurkil: 26. Iragan asteko atxilotetak ere gogoan izan zituzten, izan ere, Oier Ibaguren atxilotuaren senideak Txaramakoak baitira. Herri-tik atxiloteta hauek gogor salatu dituzte.

Espainiako banderaren ordezkia ikurrina jartzea eskatu dute

Ibarako Bai Euskal Herriari-k udal zinegotziek bizi duten testuingurua azaldu nahi izan du

A. Imaz Ibarra

Ibarako Bai Euskal Herriari-k ikurrinaren aldeko ekimena burutu du azken astean. Lehenik, iragan asteartegauetan, Espainiako banderaren aldeko idatzia zabaldu zuen herri guztian zehar. Bertan, balkoietan ikur hori jar-

itzez eskatzen zen. Ondoren, iragan ostiralean, ibartarrei azalpenak ematen zizkien bigarren idatzia zabaldu zuten: «Lehen idatzia zabaldu bakarra, ibartar guztiok gure udal zinegotziek bizi berri duten testuinguruan kokatzea besterik ez zen».

Bai Euskal Herriari herri mugimendutik Espainiako gobernuaren jarrera gogor salatu dute: «Inposaketa, mehatxu eta abarren bidez, gurek ez diren ikurrak jartzera behartu nahi gaituzte». Inposaketaren aurrean herri bezala erantzun behar dela dio Bai Euskal Herriari-k, «hainbeste min

egin digun idatzian eskatutakoa bete ez dadin».

Bide horretan, bi deialdi egin dizkie herritarrei: «Alde batetik, balkoietan ikurrinak jartzera gonbidatzen zaituztegu, eta bestetik, martxoaren 9an Tolosan egingo den manifestazioan parte hartzeko deialdia egingo dugu». Eskualde mailako mobilizazioa 12:00etan irtingo da Trianguloa plazatik.

Azkenik, lehen idatziak herriaren sortu zuen «zurumurruta eta ezin egonagatik» barkamena eskatu dute Ibarako Bai Euskal Herriari-tik.

Tolosa



KANTU JIRA TXISTU DOINUZ

Pasa den larunbatean egin zuten otsaleko kantu jira, Tolosa Kantariko kideek, Hozari aurre egin ez, ohiko ibilbidea Torito kalen hasi zuten, 12:00etan, eta herriko hainbat bistutueren laguntza izan zuten. Zerkausi pasesin, azoka inguruan zebiltzan herri-tar asko kantuan jarri zituzten. (12/24/2013)

Ibarra



LEHEN EUSKALTRAIL EGUNA ELURPEAN OSPATU DUTE

Euskal Herriko nahiz kanpoko lauogei gizon-emakume inguruk parte hartu zuten, pasa den larunbatean Ibarra, Korrikaldi entena menduarekin hasi zuten eguna,

eta elurpean elin zioten eguna! Egundian izaskunera igo ziren, bertako jaietxean bazkari legesa egiteko. Euskal korrikalari onenek alpain bereziak jaso zituzten

bazkalondoa, eta mahai ingurus ere izan zen. Oihana Kortazar, Iker Karrera, Zigor Ituriet eta Altor Lopez Re-karte izan ziren hizlariak. (12/24/2013)

Amasa-Villabona



GABONETAKO SARIDUNAK

Amasa-Villabonako Oria merkataritza elkartek, Gabonetako kanpainako sariak banatu zituen ostiralean. Koro Odrizola, Altor Nabarroa eta Begoña Luis izan dira irabazleak, eta merkataritza elkarteko dendetan erabili ahal izango duten 275 euroko txartel baina irabazi dute. (12/24/2013)

Tolosaldea eta Leizaldea



TEILATU, KALE ETA MENDIAK ZURITUTA

Irrati eta telebistetak iragarpenekin bat egin, eta pasa den larunbat goiza zuri esnatu zen Tolosaldean eta Leizaldeen. Tolosako eta Bedaiko argazkileek erakutsi du den moduan, umutira joan gabe elurraz gozatzeko aukera izan da. Tenpera-

turak ere baxuak izan dira, eta gaur arte iraungo du elur denboraleak, iragarpenen arabera. Atzo eneploak normaltasunera itzuli ziren, baina Berastegia eta Bidegolanera dozena bidaiak autopentzat itxita izan ziren (gandean). (12/24/2013)

Tolosa



ARESTIREN MUNDURA BIDAIA

Oskorik Leidoren estreinatu zuen, Gabriel Aresti bizsifan, ostrolean. Taldetako kideek aurkezpenean alpatu bezala, aspaldidanik jo gabeko kantuek nahiz abesti ezagunak izan ziren erreperitorean. Dena den, Arestiren mundura bidaiatzeko saltoa izan zen batez ere; abesti eta abesti artean bere izenaz, literaturaz eta pasadizez aritu zen Naxos de Felipe. (12/24/2013)

Ikaztegieta



KORRIKAREN ALDE

Korrika Kulturala egitasmoa jardunaldiak burutzen ari da herri herri. Ikaztegietaan pasa den asteburuan izan zen saltoa, eta musa nahiz girkana egin zituzten, hainbat herri-tako ordeskariak, Muse-an, beste hainbat herri-tako kanporaketan ondoren, finala ikaztegieta izan zen, eta adunako bikotia izan zen irabazle. Girkana, bertik, Ibarra, Andoain eta Ansoetako taldeen artean, ansoetarak izan ziren garailak. (12/24/2013)

Tolosa



ALDARRI ETENGABEAN

Ziurkilgo Huyck Wangner "Pier" enpresako langileek aldarrikapenetan jarraitzen dute, eta larunbatean Triangulo plazan elkartu ziren, lantegia ez itxeko aldarrikatuz. ELA sindikatuko dozenaka lagunek parte hartu zuten mobilizazioan. (12/24/2013)

AURREKO HAMARKADETARA BIDAIA, AUTOEI BEGIRA

III. Don Bosco ibilaldia izan zen larunbatean, eta Ementeriatik abiatutako auto klasikoak karabana eguerdian iritsi zen, Tolosako Gettoki plazara. Herri-tar askoren

ikusmina sortu zuten autuek, izan ere, lehen aldiz ospatu baitute egitasmoa Tolosan, aurreantzean Don Bosco goi mailako lanbide heziketako institutuak izango

du. Paper Eskolaren kudeaketaren ardura, eta ibilaldia bertaratzearen arrazoi nagusietako bat izan da berau. Parte hartzaileek Lapurdi plazan bazkaldu zuten. (12/24/2013)

↓ **Kirol emaitzak**

PILOTA		Azkoitia 2	18
LEHEN MAILAKO		Tolosa-Eraunzetamurg (A-S 5)	10
BINAKAKO PILOTA		Oiarpe 1	18
TXAPELKETA		Zeberio-Golkoetxeandia (A-S4)	9
Ligaxka, 10. jardunaldia		Intxaurreondo-Plazaola (A-S7)	3
Titin III-Merino II	22	Oiarpe 2	18
Xala-Barriola	9		
Bengoetxea VI-Beroiz		Alebinak	
Retegi Bi-Zabaleta	8	Gazteleku 2	16
		Etxeberria-Otaño (A-S1)	10
		Goierri 2	16
		Zugasti-Elola (A-S 2)	10
Sailkapena		J	I
1. Irujo-Zabaleta	10	8	
2. Olaizola II-Zabala	10	7	
3. Bengoetxea VI-Beroiz	10	7	
4. Titin III-Merino II	10	5	
5. Gonzalez-Zubieta	10	4	
6. Xala-Barriola	10	4	
7. Berasaluze VIII-Albisu	10	3	
8. Arretxe II-Begino	10	2	
Hurrengo jardunaldia			
Xala-Barriola			
Bengoetxea VI.a-Beroiz			
BIGARREN MAILAKO			
PILOTA TXAPELKETA			
Ligaxka, 6. jardunaldia			
Olazabal-Arruti	15		
Rico IV-Mendizabal II	22		
Sailkapena		J	I
1. Gorka-Zezilio	7	6	
2. Apezetxea-Larrinaga	7	6	
3. Rico IV-Untoria	7	5	
4. Elezkano II-Larunbe	7	3	
5. Tainta-Ladis Galarza	7	3	
6. Mendizabal III-Merino	7	2	
7. Lemuno-Aretxabaleta	7	2	
8. Olazabal-Arruti	7	1	
Hurrengo jardunaldia			
Olazabal-Arruti			
Tainta-Ladis Galarza			
EUSKAL HERRIKO PILOTA			
TXAPELKETA (Aurrera Saiatz)			
Kadeteak			
Peña-Mendia (A-S)	22		
Amurrio I	5		
22 urte azpikoak			
Hernani	6		
E. Labaka-I. Labaka (A-S)	22		
Seniorrak			
Zazpi Iturri	22		
Esnaola (Aurrera Saiatz)	14		
Zaramaga	22		
Zelaia-Elustondo (A-S)	16		
Markina	15		
Artola-Arratibel (A-S)	22		
Jubenilak			
Larrea-Erasun (A-S1)	22		
Oberena	6		
Uharte 2	6		
Labaka-Iruretagoiena (A-S2)	22		
Uharte	22		
Mugika-X. Imaz (A-S3)	19		
GIPUZKOAKO TXAPELKETA			
Infantilak			
Olalde	5		
Olazabal-Zinkunegi (A-S1)	18		
J. Jauregi-A. Jauregi (A-S2)	18		
Lapke 2	6		
Gazteleku 2	18		
Iriarte-Eraso (A-S4)	1		
Azkoitia 2			
Tolosa-Eraunzetamurg (A-S 5)			
Oiarpe 1			
Zeberio-Golkoetxeandia (A-S4)			
Intxaurreondo-Plazaola (A-S7)			
Oiarpe 2			
Alebinak			
Gazteleku 2			
Etxeberria-Otaño (A-S1)			
Goierri 2			
Zugasti-Elola (A-S 2)			
UDABERRI TXAPELKETA			
Kadeteak			
Agirretxe-Senperena (A-S)			
Azkoitia 2			
Jubenilak			
Etxeberria-Aburuza (A-S2)			
Azkoitia			
Seniorrak			
Mugika-Jauregi (A-S1)			
Igeldo			
Gaillurreranz			
Ariztimuño-Galaraga (A-S2)			
Urbieto-Biain (A-S)			
Real Sociedad 2			
IRURAKO XARE			
TXAPELKETA			
Beteranoen Txapelketa			
Ametsa 3-Ametsa 4		0-2	
Ametsa 1-Ametsa 5		2-0	
Share Elkartearen Saria			
Ametsa 3-Ametsa 4		35-40	
Ametsa 1-Ametsa 5		40-29	
Hurrengo jardunaldia			
Beteranoen Txapelketa			
Martxoak 3, 16:30			
Ametsa 3-Ametsa 6			
Ametsa 2-Ametsa 4			
Share Elkartearen Saria			
Martxoak 3, 18:00			
Ametsa 3-Ametsa 6			
Ametsa 2-Ametsa 4			
ARETO FUTBOLA			
HIRUGARREN MAILA			
21. jardunaldia			
Tolosa Hirukide-Ibarra		8-4	
Laskorain-Mallabia		11-4	
Egintza-Soloarte		7-4	
Hurrengo jardunaldia			
Ibarra-Bilbo			
Mallabia-Tolosa			
Soloarte-Laskorain			
Egintza-Santurtzi			
FUTBOLA			
ERREGIONAL OHOREZKOA			
23. jardunaldia			
Tolosa-Aretxabaleta		3-3	
Hurrengo jardunaldia			
Trintxerpe-Tolosa			
SASKIBALOIA			
LEHEN MAILA			
19. jardunaldia			
Atletico Sn		68	
Bide Bide		64	
Hurrengo jardunaldia			
Lizuan.com-Bide Bide Donosti			



Tolosako Trianguloa plazatik abiatu ziren korrikalariak euren zakurrekin. JONE AMONARRIZ

70 parte hartzaile izan dira Tolosako II. Txakurkrosean

Antolatzaileak gustura daude harrerarekin, eta gazte gehiagok parte hartzea da hurrengorako erronka

Imanol Garcia Landa Tolosa

Elurrak ez zuen atzera bota korrikan egiteko gogoa, eta 70 parte hartzaile aritu ziren Tolosako II. Txakurkrosean herenegun. Gizonezkoetan aurrenak Pedro Etxeberria (Yukon txakurrarekin), Jose Felipe Larrazabal (Sator) eta Jon Gonzalez (Konbi) izan dira. Emakumezkoetan Leire Fernandez (Harpo), Naiara Casi (Lur) eta Aida Maria Males izan dira. Antolakuntzak azaldu duenez, «gustura» daude parte hartzaile kopuruarekin. «Gainera, jendea gustura zegoen elurretan korrika

↓ **Sailkapena**

Gizonezko seniorrak	Gizonezko beterano-masterrak
1. Pedro Etxeberria (<i>Yukon</i>)	1. Fernando Lobos (<i>Lur</i>)
2. Jon Gonzalez (<i>Konbi</i>)	2. Patxi Azpiazu (<i>Lai</i>)
3. Eneko Agirre (<i>Orhi</i>)	3. Juanjo Oloriz (<i>Koska</i>)
Emakumezko seniorrak	Emakumezko beteranoak
1. Naiara Casi (<i>Lur</i>)	1. Anabel Salinas (<i>Sei</i>)
2. Aida Maria Males	
3. Leire Telletxea (<i>Negu</i>)	
Gizonezko beteranoak	Gizonezko juniorrak
1. Jose Felipe Larrazabal (<i>Sator</i>)	1. Jon Perez
2. Mikel Fernandez (<i>Bolt</i>)	2. Aitor Agirre (<i>Kai</i>)
3. Iñaki Lopetegi (<i>Negu</i>)	
	Emakumezko juniorrak
	1. Leire Fernandez (<i>Harpo</i>)

egiteko aukera izan zutelako». Bestalde, parte hartzaile gehienek amaitu zuten proba. Txakurkros ligaren probaz gain, herri mailako proba ere egin dute, eta bertan hamasei parte hartzaile izan dira. Hurrengo urtean horietako batzuk ligako proba

ban parte hartzea espero dute antolatzaileek. Tolosakoa ligaren laugarren proba izan da. Orain beste bi falta zaizkie korrikalarietara, Errenterriakoa eta Oartzungoa. Antolakuntzatik azaldu dutenez, euren erronka gazte gehiagok parte hartzea da.

Olaberria seigarren, Mundukoan

Txirrindulari ikaztegiatarra gustura dago Bielorrusiako txapelketan lortutako emaitzarekin

I. Terradillos Ikaztegiata

Leire Olaberriak seigarren amaitu du Munduko Pistako Txirrindularitza Txapelketan. Minsk-en

(Bielorrusia) jokatu dute txapelketa, eta ikaztegiatarra, «oso gustura» geratu dela adierazi du. «2012 urtea ahazteko moduko urtea izan da niretzat, eta emaitza honek oso pozik uzten nau», esan du. Ez du podiumean sartzerik lortu, baina, «sentsazio onekin» geratu dela azaldu du, «gozatu» egin baitu.

Seigarren postuan ekin zion atzo Leirek. Jazarpenean zuen postua zen hori, denbora onare-

kin, gainera. Proba horretan emaitza hobea lortu zezakeela azaldu du, «agian beste teknika bat erabiliz», baina ez zen posible izan. Scratch proban «guztia ematera» irten zen pista ikaztegiatarra, baina ez zitzaion ondo atera, eta hamaikagarren egin zuen. 500eko proban bosgarren amaitu zuen, bere markarik onena eginez, eta azkenean, orokorrean, seigarrena izan zen Olaberria.

Hasiera bikaina Danenako pultsularientzat

Eskualdeko pultsulariek maila ona erakutsi dute Euskal Ligako lehendabiziko jardunaldian

I. Terradillos Villabona

Euskal Herriko Halterofilia liga-ko lehen jardunaldia jokatu zuten iragan larunbatean, Amasa-Villabonako Olaederra kiroldegian. Bertan, eskualdeko Danena Halterofilia taldeak emaitza oso onak izan zituen.

Guztira lau jardunaldi izango ditu ligak, eta puntu gehien lortzen duten hamar taldeak sailkatuko dira Espainiako Kopan lehiatzeko. Danenako pultsulariek 1.911 puntu batu zituzten larunbatean. Batis Kortajarena entrenatzailea «oso pozik» agertu da, «emaitza oso ona baita». Bere ustez, lehen hamarretan sartzeko aukera handiak izango ditu taldeak.

Lehen jardunaldi honetan, Lyam Rodriguez, Igor Sasiain,



Susana Davila billabonatarak izan zen lehena emakumezkoetan. III.

Asier Gallego, Ion Sasiain, Mikel Alvarez, Francisco Gonzalez eta Teddy Martinez lehiatu ziren. Horietatik, Alvarezen lana nabarmendu du entrenatzaileak, «Euskadiko hiru errekor egin baitzuten: arrankadan 138 kilo, eta beste bi olinpiko osoan, 301 kiloa utziz, 77 kiloko kategorian». Bana, Mikel Alvarezek lortu zuen puntu gehien, Teddy Martinez sailkatu zen bigarren, eta Ion Sasiain izan zen hirugarren.

Hurrengo jardunaldia apirilaren 27an izango dute Danenako pultsulariek.

Emakumezkoen selekzioa

Bestalde, taldeka ez baino, Euskadiko selekzioarekin lehiatu ziren iragan larunbatean Danena taldeko emakumezko pultsulariak, eta hauek ere maila ona erakutsi zuten. Hain zuzen ere, puntuazioaren arabera, Villabonako Susana Davila sailkatu zen lehen postuan, eta bigarren, Larraulgo Goretzi Amonarriz. Emaitza bikaina, beraz, bai neskentzat, bai eta mutilentzat ere.

● tolosaldean@hitza.info

Porrotarekin ekin dio Patxi Zeberioi Sagardoaren Txapelketari

Etzi jokatu dute bigarren partida elduaindarrak eta Urkok, Matxin-Etxeberriaren aurka

I. Terradillos Elduain

III. Sagardoaren Txapelketa porrotarekin hasi du Zeberio II.ak. Hain zuzen ere, Endika eta Barrenetxea IV.aren aurkakoa zuen lehen partida elduaindarrak eta Urkok osaturiko bikoteak, eta 31-40ko emaitzarekin galdu zuten. Partida nahiko orekatua izan zen, eta azken zatian erabaki zen. Txapelketako bigarren partida etzi, ostegunean izango dute, Zeberio II.ak eta Urkok. Matxin III eta Etxeberria III.aren aurka jokatu dute, Hernaniko Galarreta pilotalekuan, 16:00etatik aurrera.

Barriolari zailtzen ari zaio Binakako Txapelketa

Leitzarra eta Xala seigarren dira azken partida galdu ostean; Bengoetxea hirugarren postuan dago

I. Terradillos

Binakako Pilota Txapelketako 10. jardunaldia jokatu zuten iragan asteburuan Barriolak eta Bengoetxeak. Lehenak ezin izan zuten partida irabazi, eta bigarrenak, berriz, garaipena eskuratu zuten.

Xalak eta Barriolak Donibane Garazin jokatu zuten ostiralean, Titin III.a eta Merino II.aren aurka, eta 22 eta 9ko emaitzarekin

galdu zuten. Leitzarra eta lapurtarra ezinean aritu ziren partidaren hasieratik. Merino atzeko koadroetan nagusi izan zen, nahiz eta Barriola saiatu. Leitzako atzelariak ezin izan zuten pilota kendu, eta Titinek ederki aprobeztatu zuen tantoa bukatzeko. Xala, berriz, makal aritu zen, eta ez zuen ongi defendatu. Norgehiagoka erraza izan zen, beraz, errioxarrentzat, eta garaipenari esker, sailkapenean gainditu egin dituzte Xala eta Barriola.

Bengoetxea VI.ak eta Beroizek, bestalde, larunbatean jokatu zuten partida, Gasteizko Ogeta pilotalekuan, Retegi Bi eta Zabaletaren aurka, eta 22 eta 8 irabazi zuten. Uhartekoak eta Leitzakoak

osaturiko bikoak atzean kargatu zuen jokoa, eta Etxarrego atzelaria azkar nekatu zuten. Julen Retegi, Juan Martinez Irujoren ordezkaria, ez zen ia partidaren azaldu, eta ezin izan zion bere atzelariari lagundu. Gainera, Leitzako aurrelariak sakearekin min handia egin zion Zabaletari, zapzi tanto eginez. Bengoetxeak eta Beroizek hurrengo faserako sailkapena ia baieztatua dute.

Asteburuko gainerako partidei dagokionez, Olaizola II.ak eta Ibai Zabalak 22 eta 11 irabazi dute Berasaluze VIII.a eta Albisuren aurka, eta Arretxe II.ak eta Beginok, berriz, 13 eta 22 galdu dute Ezkurdia eta Zubietaren aurka. Hurrengo jardunaldian elkarren aurka

ariko dira bi leitzarrek. Iruñean jokatu dute partida datorren larunbatean, martxoaren 2an, Xalak eta Barriolak Bengoetxea VI.a eta Beroizen aurka.

10. jardunaldia jokatu ostean, Martinez Irujo-Zabaleta dira lehena sailkapenean. Bengoetxea VI-Beroiz hirugarren dira, eta Xala-Barriola seigarren.

Olazabal azken postuan

Bestalde, Bigarren Mailako Txapelketari dagokionez, Mikel Olazabal lizartzarrek eta Arrutik 15 eta 22 galdu zuten asteburuan, Rico IV.a eta Mendizabal II.aren aurka. Ondorioz, azken postuan jarraitzen dute sailkapen orokorrean.

Final laurdenetan geratu da Lara Arruabarrena, Bogotan

I. Terradillos Tolosa

Bogotan (Kolonbia) asteburuan jokatu den Tennis Txapelketan ezin izan du finalerdietara pasa Lara Arruabarrena. Final laurdenetan Karin Knapp italiarra izan zuen aurkari, eta 6-3 eta 6-3ko emaitzarekin galdu zuen tolosarrak partida. Iragan astean Calin jokatu zuen txapelketa irabazi zuen Arruabarrenak, eta nekearen ondorioz, partidaren erritmoan sartu ezinik ibili zen.

● Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info

PILI VELARDE AIZPURUA

Larunbatean hil zen Donostian.
38 urte zituela

Zure imibareak
ez degu inoliz ahaztuko.

Endaferetako lehengusua

ZUMAIA, 2013ko otsailaren 24an



6°
0°

GOIZA OSTARTEAK
ARRATSALDEA LAINOTUTA
BEROENA 6°
HOTZENA 4°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibarra@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizalde: 687 410 118. leizalde@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak
SM-ko kideak:**

**BERTAKO
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzea, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Inauterietako Argazki Lehiaketa



GOENKALEKO AKTOREAK ETA KAMERAK

Euskal Telebistan hain ezaguna den Goenkale telesailako aktoreek eta kamerekin ere, Inauterietako Argazki Lehiaketan parte hartu nahi izan dute. «Hemen gaude, Lutxi, Txapas, Tximas, Maria Luisa, Leonor, Margari, Hortentxi, Xanti, Nekane, Naroa eta bi kamerak», azaldu du Irati Artutxak. «Zaldunita egunean moztarrotu ginen, eta dantza

egiteaz aparte, antzerki pixka bat ere egin genuen. Primeran pasa genuen», gaineratu du. Lehiaketan parte hartzeko martxoaren 3a, igandea, baino lehen thargazkiak@hitza.info helbidera bidali behar dira argazkiak. Irabazleak, Hernialdeko Elketa jatetxean bi lagunentzako otordua eskuratuko du. I. ARTUTXA

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Ibarra.** Gaur, hilak 26, Minbizia goiz antzemateari buruzko hitzaldia izango da. 17:00etan hasiko da Ibarra kultur etxean, eta Katxalin bularreko eta ginekologiako minbizia duten emakumeen elkarteak emango du, Ibarra udaleko gizarte zerbitzuaren laguntzarekin. Minbizia-aren arrazoiak, tratamendua eta prebentzioa izango dira jorratu-ko diren gaiak.

■ **Ibarra.** Ibarra Udalak 2013ko aurrekontuak aurkeztu-ko ditu, gaur, 19:00etan, udaletxean. Ez daude guztiz itxiak, eta herritarrek gonbidatu nahi dituzte bertan parte hartzea.

■ **Leizta.** Gaur, 16:00etan, Sarean korapilatuta izeneko beste saio bat izango da Leiztako Institutuko guraso elkartearen antolatuta. Susana Manzanedo psikologoa emango du hitzaldia. Sare sozialean arriskuak zein diren ezagutzeko aukera izango

da, eta horren aurrean gurasoek zer egin dezaketen ikasteko aukera izango dute.

■ **Tolosa.** Apirilaren 14aren aurreko astean, Tolosako Foru Errepublikanoak Kultur Aste Errepublikanoa antolatuko du. Errepublika garaiko argazki eta gauzen erakusketa egin nahi dute, eta herritarren laguntzaz materiala bildu nahi dute. Horretarako, kultur etxera joan behar da martxoaren 1era bitartean, 19:30etik 21:00ra.

ZINEMA

■ **Tolosa.** Gaur, hilak 27, Ekozinemaldiaren barruan, *Del viento al azul* eta *Los Naua, 20 años después* ikusteko aukera izango da, Leidor aretoan. 20:00etan hasiko da, eta Ekologistak martxan taldearen eskutik izango da. Sarrera doan da.

ERAKUSKETAK

■ **Tolosa.** Salam, beste kultura batzuei irekitako leihoa erakusketak berria dago ostiralaz geroz-

tik, Aranburu Jauregian. Tolosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun sailaren eskutik ikus daiteke erakusketa hau.

■ **Alegia.** Erretirodunen tabernan Sara Gomez amezketarren erakusketa dago ikusgai. Aste hau izango da argazkiez gozatzeko azken aukera. Donejakue bidean ateratako argazkiak dira.

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Egunkoa eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria kalea, 46.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefona: 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefona: 112.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan- en eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak



Zorionak!

Amalur Beloki Tobar (Alegia).
Larunbatean 8 urte. Familia,
Garazi eta lehengusuen
partetik muxu handi bat!



Zorionak!

Irati Tobar (Ikaztegieta).
Abenduaren 14ean jaio zen.
Ongi etorri printzesa eta muxu
handi bat familiaren partetik.

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●●● **agurrak**

**Egin HITZAren
HARPIDEDUN**
otsailaren 1etik
martxoaren 31ra arte,
ETA JASO

**EKAIN
sagardoa**
6 botilako
kaxa bana



Harpidedun egiten diren
guztien artean

Orduñako Aisia
hotelean,
bi pertsonarentzako
asteburu
baterako
egonaldia
ZOKATUKO
DUGU



Harremanetarako:
902 82 02 01
harpidetza@hitza.info

hitza info